

AZPIEGITURAK ▶

# Oiangun ureztaketarako ura biltzeko sistema aurreikusi du Udalak balizko golf zelairako

Plan Berezian neurri zuzentzaileak jaso dituzte «eragin negatiboetarako», eta ingurumen eragina aztertuz oinarriak jarri dituzte proiektua gauzatzeko

MAIDER DEL OLMO

Oianguko Plan Berezia kalera du Ordiziako Udalak. Bertan, besteak beste, Oiangun urak biltzeko elementuak jartzea aurreikusi dute lehenengo fasean. Plan Berezia dioenez, «lehenengo fasean Oiangu baserriarekin eta eranskinekin lotura duten lursailak landu nahi dira. Eredu horretan urak biltzeko elementuak jar daitezke, agian eraikiko diren kirol instalazioetarako (golf zelaietarako, abenturazko kirola egiteko guneetarako...) ureztaketarako urak gorde ahal izateko».

Plan Berezia ez ditu eremu bakoitzean ezarriko diren erabilera zehazten, eta plan hori proiektu zehatz baten beharrei erantzuteko egin bazuten ere, onartzen denean aurreikusita ez dagoen beste proiektu bat eraman daiteke aurrera, Udaketik esan dutenez. Beraz, eremu ezarriko diren erabilera eta horiek gauzatzeko azpiegiturak eta beste behar batzuk zehazteko daudenez «kazalekoak» dira proposatutako neurriak.

Oiangu Landa Parkeko antolamenduko plan bereziak ingurumenean duen eragina aztertute. Hainbat neurri zuzentzaile ezartzen dituzte «eragina negatiboa» izango den eremuetan. Horrekin batera behin betiko proiektuak zein baldintza bete behar dituen azaldu dute eta gomendioak eman dituzte ingurumen eraginari dagokionean.

Plan Berezian sartzen diren lurrak hauek dira: basoa ustiatzeko eremuak, zelaiak eta hor-

## PLAN BEREZIKO BEHIN-BEHINEKO NEURRIAK ▶

Oiangu landa parkea «babesteko, zuzentzeko eta konpentsatzeko» Plan Berezia aurreikusten dituen neurriak eta baldintzak behin-behinekoak dira. Horiek behin betiko proiektuan egingo diren azterketetan zehaztu beharko dira. Hemen behean azaltzen diren ingurumen baldintzak bete beharko ditu proiektuak, eta gomendioak jaso.

### AZPIEGITURAK

**Bertako fisonomia errespetatu.** Azpiegitura gogorrik murriztuko dira, hormigoia edo itzul ezinezkoak edota ingurura egokitzeko zailak diren material artifizialak ahalik eta gutxien erabiliz.

### ZUHAITZAK

**Garbiketak.** Zuhaitzak garbiketarako egiteko eta saneatzeko bakarrik moztuko dira. Sastrakak garbitu eta hobetzeko lanak egin daitezke.

### LUR AZPIA

**Interes didaktikoa.** Landa Parkeak berezitasun hipogeoak du. Plan Berezia egingo den proiektuan alde hori lantzea gomendatzen du (informazio-kartelak jartzea,...).

nikuntza eremuak, jabetza publikokoak nahiz pribatukoak. Oiangu-Txiki baserria eta Oiangu baserria, biak sartu dituzte Plan Berezian.

«Hornikuntza onartzen duten gune librean sistemak sor-



Oiangura egindako txango bat.

### LANDARETZA ETA LURZORUAK

**Zainketa.** Parkeko hainbat eremutan ibiltari eta erabiltzaile asko izango direnez, landaretza eta lurzorua zaintzeko zer lan egin ikusiko da.

### LANDAKETAK

**Mozketak berdintzeko.** Proiektuan landaketak sartuko dira, (Oianguko baserriaren inguruko eremuan) egingo diren mozketak berdintzeko. Antzera, landa-eremu gisa katalogatutako eremuaren hegoaldean hariztia dagoen

daitezkeen eraginak, neurri handi batean, erabileraren araberakoak izango dira; bisitarien kopurua, mantentzea, eta abar. Positiboak nahiz negatiboak izan daitezke, baina garrantzia txikikoak beti. Eraginik handiena ere bateragarritzat jotzen da», dio Plan Berezian.

Sor daitezkeen beste eragine-tako bat zabor gehiago izatea da Plan Berezian aurreikusten dutenez, erabiltzaile kopurua handiagoa izatea espero dutelako. Hori dela eta, zaborra behar bezala biltzeko eta kudeatzeko neurriak hartzea gomendatzen da: «Horrenbestez eragina bateragarria da», azaldu dute Udaletik.

«Nekazaritzan produktibitatea oso gutxi jaitsiko da, ez baitira larre gehiegi galduko.

gunean egingo diren proiektuetan eta jardueretan mozketak berdintzeko.

### HONDAKINAK

**Zaborren kudeaketa.** Ibiltari eta erabiltzaile gehiago izatea espero denez, sortuko diren Hiriko Hondakin Solidoak (edukinontziak, zakar-ontziak eta abar) behar bezala kudeatzeko modua landuko du proiektuak.

### GARRAIO PUBLIKOAK

**Aparkalekuak.** Aurreikusi duten bezala erabiltzaile kopurua igotzen bada aparkatzeko leku guztiak beteko dira. Aparkaleku ahalik eta gutxien handituko da, eta proiektuan jasotzen diren jardueretan garraio publikoa sustatzea gomendatzen da, eta beharrezkoa bada parkera iristeko baldintzak hobetzea.

### ARKEOLOGIA

**Aholkuak eta zaintza.** Oiangu Txikiko balizko arkeologia-gunean egingo diren lanak aintzat hartuko dute egoera hori, eta arkeologoek aholkuak eta zaintza nahiz baimen bereziak beharko dituzte.

Gune horiek jolas eta kirol erabileretara zuzentzean lortuko diren onura sozioekonomikoei galera argi konpentsatzen dute. Eragina bateragarritzat jotzen dugu, beraz».

Oiangu Txikiko lanez azaldu dutenez, «Oiangu Txikiko Balizko Arkeologia Gunean ezagutzen ez diren kultura-ondareek jasan dezaketen eragina ez dakigu zenbaterainokoa izango den. Hori dela eta, balorazio desberdinak egin ditugu. Jarduerak, beraz, arkeologoen zaintzapean egingo dira», adierazi dute.

Plan Berezian Oiangu Landa Parkea «babesteko, zuzentzeko eta konpentsatzeko» ezarritako neurriak eta gomendioak betetzen direla baieztatuko du Udalak, behin betiko proiektua onartu aurretik.

GIZARTEA ▶

## Emakumeen hezkuntzaz erakusketa dago Barrenan

Intered GKEk antolatu du ekimena, Iparra-Hegoa egitasmoaren barruan

M. DEL OLMO

Intered Gobernu Kanpoko Erakundeak antolatuta eta Udako Ongizate Sailaren laguntzarekin, *Emakume bat hezitzea herri bat hezitzea* da erakusketa jarri dute Barrena kultur etxe atarian, Hegoaldeko biztanleen inguruko. Erakusketa egun osoan egingo da ikusgai urriaren 31ra bitartean. Iparra Hegoa egitasmoaren barruko ekimena da. Erakusketa hezkuntzak emakumearen eta bere ingurunearen garapenerako duen garrantzia azpimarratzen du.

### «Paper garrantzitsua»

Antolatzaileen arabera, «Emakumearen hezkuntzak eta bere garapenak paper garrantzitsua betetzen du herri baten garapenerako», azaldu dute.

Erakusketa Espainiako Estatuok hainbat herritan jarri dute ikusgai joan den hilabeteetan, eta Ordizian ikusteko aukera dago.

GIZARTEA ▶

## Ekitaldi ugari izango da egunotan jubilatuenan

M. DEL OLMO

Jubilatuak Elkarteak hainbat ekintza antolatu ditu datozen egunetarako. Hala, ostegunetan bingo jokoa egingo dute, arratsaldeko seieta, kafetegian. Larunbatean, berriz, dantzaldia izango da arratsaldeko seiak eta erdietatik aurrera. Bestalde, azaroan bi txango egiteko asmoa dute jubilatuek: Iratxera eta Baztanera. Joan nahi dutenek gaur eman behar dute izena jubilatuen elkarteetan. Informazio gehiagorako eta izena emateko: 943 88 92 88 (zuzendaritza).

